



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

2026KO URTEKO AURREKONTUA BETETZEKO ARAUAK

LEHEN TITULUA – AURREKONTUA ONARTZEARI BURUZ

1. ARTIKULUA – ARRASATEKO UDALAREN AURREKONTUA.

1. Guztira 81.967.418,88 euroko zenbatekoaz onartu dugu 2026eko ekitaldiko aurrekontua, gastuetan nahiz diru-sarreretan.

2. Aurrekontuaren aplikazio aldia: 2026eko ekitaldi ekonomikoa eta, egonez gero, haren luzapena.

Urtealdiaren bukaeran deuseztaturik geratuko dira aurrekontuaren indarraldian inbertitu edo konprometitu ez diren kredituak, ezarritako legezko prozeduraren arabera sartu daitezkeen kredituak izan ezik.

BIGARREN TITULUA – KUDEAKETA EKONOMIKOARI BURUZ

2. ARTIKULUA – KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ESKUMENA

1. Gastuen eta Sarreraren aurrekontu hau izango da Arrasateko Udalaren Ekonomia Legea 2026eko ekitaldian, eta Udalbatza honi dagozkio aurrekontuan sartutako diru-izendapenen administrazioa.

2. Alkatea eta, berak delegaturik, Ogasuneko Batzordeburua, kontu-hartzailearen aholkularitzarekin, Aurrekontua bete dadin arduratuko dira, eta aurrekontuan ezarritakoa Zerbitzuek ere egin eta bete dezaten, betiere, indarrean dauden legezko xedapenen, arauon eta Udalak hartutako eta hartu ditzakeen akordioen arabera.

3. ARTIKULUA – AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Kontuhartzailletza Sailak hileroko aurrekontuaren exekuzio egoeraren eta Udalaren ekonomia eta finantza egoeraren gaineko informazio bidaliko die Ogasun Batzordeko batzordekideei eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideei.

2. Hiru hilean behin aurrekontuaren exekuzio egoeraren berri emango dio Udalbatzarrari.

HIRUGARREN TITULUA – GASTUA ONARTZEARI BURUZ ETA ORDAINKETA

AGINTZEARI BURUZ

4. ARTIKULUA – FASEAK GASTUAREN KUDEAKETAN

1. Fase hauetan egingo da Erakunde Autonomoen gastuen aurrekontuaren kudeaketa:

- | | |
|-----------------------------------|-----|
| a) Gastua baimentzea | “A” |
| b) Gastuaren erabilera | “D” |
| c) Obligazioaren errekonozimendua | “O” |

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

d) Ordainketa agintzea

“p”

A) GASTUAREN BAIMENA - Gastua egitea erabakitzen duen egintza da, kopuru jakin batena, hartarako jarrita aurrekontu kreditu osoa edo haren zati bat.

Gastua ontzat emateko Organo eskudunak akordio horretan nahitaez adierazi behar du gastuaren kopuru zehatza edo estimatua, eta gastua zertarako den deskribatu behar du labur, bai eta gastu hori finantzatzea proposatzen den konturako kontu-saila ere.

Ondorio hauetarako izapidetu behar diren kontratazio espedienteetan egin beharreko kreditu erreserbek gastu onarpenaren tratamendua izango dute.

B) GASTUAREN ERABILERA - Gastua egitea erabakitzen duen egintza da, aldeztu aurretik baimendua, kopuru zehatz batez eta hirugarren batekin edo hornitzaile jakin batekin.

Gastuaren espedientearen hasieran kopurua zehatz-mehatz eta hirugarren horren edo jasotzailearen izena zein den dakienean Erakundeak, fase bakarrean "AD" pilatuko dira baimen eta erabilera faseak.

C) OBLIGAZIOAREN ERREKONNOZIMENDUA – Dagokion dokumentu euskarriarekin (fakturak, ziurtagiriak, eta abar), entitateari eskatu dakioken kreditu bat dagoela adierazten duen egintza da, baimendua eta konpromisoa hartutako gastu batetik datorren kreditua.

Salbuespenez eta gastuaren izaeratik datorrelarik, fase bakar batean pilatu ahal izango dira baimena, erabilera eta obligazioaren errekonozimendua “ADO”

D) ORDAINKETA AGINTZEA - Errekonoizitu eta likidatutako obligazio baten arabera, ordaintzeko agindua ematen duen egintza da.


2. Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea:

Gastuen aurrekontua gauzatzeko faseak administrazio-egintza bakar batean metatu ahal izango dira, gastuen izaera eta ekonomiaren eta administrazio-arintasunaren irizpidea kontuan hartuta, honako kasu hauetan eta adierazitako mugekin:

- (ADO): Toki-erakundeak legeztatu hartutako konpromisoetatik eratorritako eragiketa arruntengatik gastuei dagokien obligazioa baimentzea, xedatzea eta aitortzea, betiere horiek justifikatuta badaude, obligazioaren galdagarritasuna berehalakoa denean: Bidegiren gastuak, ordainketa-gutunak, helbideratzea eskatzen duten gastuak, finantza-gastuak, kontribuzioak eta zergak, iragarkiak eta harpidetak, aseguru-poliza, energia-hornidurako gastuak, eta abar. Talde horretan sartuko dira, halaber, langileen hileko nominen ordainketa eta toki-erakundearen konturako Gizarte Segurantzako kuotak.

Edonola ere, aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da erabakia hartzen duen organoak jatorrizko eskumena, eskuordetua edo deskontzentratua izatea ebazpenetan jasotzen diren fase guztiak erabakitzeko.

3. Bi urte edo gehiagotan egin behar diren gastu korronteen kasurako (batzordeen ekintzak, ikastaroak eta abar), aurrekontuko urtealdi bakoitzari ezarri dakioken gastuaren zenbatekoa jaso behar da udal akordioan.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

4. Inbertsioen kapituluko gastuen (D fasea) adjudikazio akordioetan, eta hartarako izapidetutako kontratazio prozeduretan, agertu behar dira nahitaez adjudikatutako gastua hasi eta amaitzeko pentsatutako egunak eta, hurrengo urteen konturako konpromiso kredituen bitartez aurreikusten bada finantzazioa, aipatu beharko dira ekitaldi bakoitzeko kopuru inputagarria.


5. Obretan eta inbertsioetan, obra zuzendaritzak edo dagozkion sail teknikoek antzematen badituzte kostuen desbideraketak daudela edo hasieran onartutako proiektua aldatu behar dela, adjudikazio aurrekontuaren aldean %5etik gorako aldaera ekartzen dutenak eta, halaber, 10.000 €-tik gorako gehitze bat denean, berehala emango zaio horren berri adjudikazioa baimendu zuen organoari, behin betiko likidazioa edo bukaerako ziurtagiria egin arte itxaron gabe, hori guztia obra edo inbertsio horren kostuaren eta, hala badagokio, kontratazio espedientearen aurrekontua eta kontuak erregularizatzeko behar diren prozedurak abian jartzeko. Hori guztia, kontuan izanik bete egin behar direla Sektore Publikoaren Kontratuari buruz aplikagarria den legeria.

5. ARTIKULUA – GASTUEN BAIMENA ETA XEDAPENA (A eta D FASEAK)

1. Honako hauei dagokie gastuak baimentzea eta xedatzea, zenbatekoen arabera:

- a. 1.000 euro arteko gastuak: zerbitziburuei, dagozkien fakturak SarEko aplikazioaren bidez baliozkotuko dituztenak. Eragiten dien kredituen jarraipena egin beharko da. Alkatetza sailari dagozkion partiden kasuan, alkateak baliozkotuko ditu.
- b. 1.000 eta 3.000 euro arteko gastuak (obrak 1.000-10.000 euro): gastua proposatzeko txostena beharko da, zerbitzuaz arduratzen den teknikariak sinatua, saileko zinegotzi ordezkariaren oniritziarekin batera. Alkatetza sailari dagozkion partiden kasuan, alkateak sinatutako gastu-proposamenaren txostena beharko da.
- c. 3.000 eta 12.000 euro arteko gastuak (obrak 10.000-30.000 euro): zerbitzu arduradunaren txosten tekniko eta saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena beharko dira. Alkatetza sailari dagozkion partiden kasuan, alkateak sinatutako gastu-proposamenaren txostena beharko da. Txosten horrek justifikatu egin beharko ditu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuarenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak, 118. artikuluan eskatutakoak:
 - Kontratuaren beharraren justifikazioa.
 - Kontratazio-arau orokorrak aplikatzea saihesteko kontratuaren xedea aldatzen ari ez delako justifikazioa.
 - Iraupena urtebetetik beherakoa eta luzatzeko aukerarik ez dagoela dioen justifikazioa.
 - Kontratuaren prezioa merkatuari egokitzen zaiola eta egokia dela kontratua benetan betetzeko, 9/2017 Legearen 102.3 artikuluan ezarritakoa betez.
 - Zerbitzu-kontratuetan, baliabide nahikorik ez dagoela justifikatu beharko da.
 - Ez zaie aplikatuko 5.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratu txikiei, baldin eta kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren bidez edo antzeko sistemaren baten bidez ordaintzen badira.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			








Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- Obra-kontratuetan, obren aurrekontua aurkeztu beharko da, obra-arduradunak sinatuta, eta, hala badagokio, proiektua eta berariazko adierazpena, obrek obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten ez diotela adierazten duena.
 - Obrek obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badiote, unitate eskudunak txostena dagoela.
 - Proiektua, hala badagokio, organo eskudunak onartu duela.
- d. 12.000 eta 15.000 euro bitarteko gastuak (30.000-40.000 euro bitarteko obrak): aurreko puntuan eskatutako txosten teknikoaz eta ebazpenaz gain (alkatetza-sailari dagozkion partidetan izan ezik, horiek aurreko puntuan eskatutakoa bete beharko dute), sektoreko hornitzaileei 3 aurrekontu eskatu beharko zaizkie, merkatuko eskaintzak erosteko eta zerbitzua eskaintza onuragarrienarekin esleitzeko hornitzaileari.
2. Zenbatekoek kontratu txikietarako ezarritako mugak gainditzen dituztenean, Tokiko Gobernu Batzordea izango da kontratazio-organoa, baldin eta obra-kontratuetan, zerbitzu-emakidako kontratuetan eta administrazio-kontratu berezietan, haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa, urte anitzekoak barne, baldin eta haien iraupena ez bada lau urtetik gorakoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatuak ez badu gainditzen ez lehen ekitaldiko baliabide arrunten ehunekoa, ez adierazitako zenbatekoa.
3. Udalbatzak izango du eskumena honako hauen ondoriozko gastuak baimendu eta xedatzeko:
- Obrak eta inbertsioak kontratatzea, bere eskumenen barruan.
 - Legez dagozkion gainerako gastuak.
4. Nuluak izango dira korporazioaren edo agintarien erabakiak, baldin eta gastuak onartzen badituzte, zerbitzu berriak sortzen badituzte edo lehendik ezarritakora zabaltzen badira, eta ez badago horiek ordaintzeko aurrekontu-kreditu nahikorik.

6. ARTIKULUA – BETEBEHARRA AITORTZEKO ESKUMENA (O FASEA)

1. Betebeharrak aitortzeko, zerbitzua edo hartutako betebeharrak behar bezala gauzatu direla egiaztatu beharko da, eta, orduan, zerbitzuaren arduradunak fakturaren oniritzia eman du, SarEko aplikazioaren bidez. Bertan, dagozkion AD edo gastua kargatuko den partida adierazi beharko da.
2. Obligazioa onartzeko organo eskuduna alkatea izango da, fakturen zerrenda onartuz.
3. Tokiko gobernu-batzarrak eskumena izango du:
 - a. Obren azken ziurtagiriak onartzeko.
 - b. Zerga-kudeaketatik eratorritako bidegabeko sarreraren itzulketak onartzeko, 6.000 eurotik gorakoak badira.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

4. Udalaren osoko bilkurak izango du eskumena honako hauen ondoriozko betebeharrak aitortzeko:
- Obrak eta inbertsioak kontratatzea, bere eskumenen barruan.
 - Legez dagozkion gainerako gastuak.

7. ARTIKULUA - ORDAINKETA AGINTZEA

1. Alkateak zuzenean egin ahal izango ditu ordainketak, ordainketak agintzen dituen aldetik, ondorengo izapiderik egin gabe:

- a) Pertsona edo erakunde jakin batzuen izenean aurrekontuan sartutako zenbatekoak, edo zerbitzu jakin batzuetarako bereziki kontsignatutakoak eta aurrekontuan zehatz-mehatz aurreikusitakoak.
- b) Hartzekoen nominak eta mota guztietako gainerako ordainsariak, Pertsonaleko Departamentuak idazten dituenak, aldeztu aurretik buruek zerbitzuak eman dituztela ziurtatuz gero, eta kontu-hartzailearen "kontu-hartzaileak eta adostasunak", organo eskudunek onartutako ordainsari-mailen arabera.
- c) Aldi baterako langileen ordainsariak.
- d) Udalarekin hitzartutako kontratuei dagozkien gastuak, obligazioen zenbatekoa eta zenbatekoa berariaz adierazten direnean, dagozkion buruak zerbitzuak eman dituela ziurtatu ondoren.
- e) Kontribuzioak eta zergak.
- f) Iragarkiak eta harpidetzak.
- g) Telefono-zerbitzua eta gas- eta gasolio-hornidurak.
- h) Lokomozio-gastuak eta dietak, eta ikastaroetara joateko gastuen likidazioa.
- i) Indarrean dauden mailegu-eragiketen interesak eta amortizazioak.
- j) Itxitako ekitaldietatik datozen ordainketak, aurrekontuaren likidazioan zehatz-mehatz kuantifikatuta badaude.
- k) Alkatetzaren eta gainerako zinegotzien ordezkaritza-gastuak, bai eta udal-taldeei egindako ekarpen ekonomikoak ere.
- l) Etxeko laguntza-zerbitzuaren eta tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuaren kontratuetan emandako lanei dagozkien fakturak.
- m) Era guztietako alokairuak.
- n) Gizarte Segurantzako eta Elkarkidetzako kuotak, sortutako eta ordaindutako ordainsarien ondoriozkoak.
- ñ) Bidegabeko sarreraren itzulketak, aldeztu aurretik kontu-hartzaileak informatuta.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

o) Zerbitzu mankomunatuena eta udalak parte hartzen duen udalaz gaindiko beste organo batzuen kuotak.

p) Udalak sinatutako aseguru-kontratuei dagozkien polizak.

q) Gizarte Zerbitzuen arloak (Pobrezia Plana, Drogamenpekotasunak, babesgabetasun-egoerak, familientzako laguntzak, gizarte-bazterketako arriskuak, etab.), Gazteria Arloak (etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntzak) eta Enplegu Arloak (enplegurako dirulaguntzak) kudeatutako programak aplikatuz eratorritako betebeharrak ekonomikoak, gastua onartzeko hasierako udal-erabakiaren ondoriozkoak, sail horretako teknikarien oniritzia jaso ondoren.

2. Gainerako gastuak ordaintzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bigarren kapituluko gastu arruntetarako (Ondasun eta Zerbitzu Arruntak eta Kap.). Laugarrena.- Transferentzia arruntak, dirulaguntzazkoak izan ezik, honako hauek eskatuko dira:

a.1. Hornidura jaso duen bulegoko edo zerbitzuko buruaren adostasuna.

a.2. Kontu-hartzailetzaren arrazoi-hartzea, aurrekontuan ordainketa egiteko nahikoa kontsignazio dagoela egiaztatzeko.

b) Gainerako gastuetarako (inbertsioei dagozkien dirulaguntzak, ziurtagiriak edo fakturak, etab.), gastua onartzeko eskumena duen organoaren erabakia beharko da (zinegotzi ordezkaria, Alkatetza, Tokiko Gobernu Batzarra, Udala. Osoko Bilkura).

Hala ere, Inbertsio Errealen buruzko seigarren kapituluaren barruan, 40.000 €-tik beherako zenbatekoa duten obrak edo inbertsioak ere sartu ahal izango dira alkatetzatik izapidetu beharreko fakturen zerrendan, baldin eta, presazko arazoengatik edo izapideak arintzeagatik, egokitzen jotzen bada, betiere fakturei eska dakizkiekeen baldintza berberak bete ondoren (gastuaren hasierako akordioa, zerbitzuaren adostasuna, arazoibidea hartzea, eta abar).

3. Hasieran onartutako gastuarekiko % 10etik gorako desbideratzea duten gastuen ordainketa agintzeko, eta desbideratze horren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa bada, gertatutako desbideratzea justifikatzen duen txosten tekniko idatzia beharko da.

4. Zerbitzuak emateko ordaindu beharreko zenbatekoak libratu eta "justifikatu beharreko" ordainketatzat hartuko dira, baldin eta zerbitzu horien egiaztapenak ezin badira lortu ordainketak egiteko unean. Alkateak aintzat hartuko ditu inguruabar horiek, ordainketak agintzen dituen aldetik.

Era berean, zerbitzuen funtzionamendu arina eta egokia bermatzeko, eta funtsen benetako beharrak baldintzatuta, urte hasieran ordainketa-agindu bat izapidetzea baimendu ahal izango da, gastu arruntetarako justifikatu beharreko aurrerakin gisa, honako zentro edo bulego hauei ordaintzeko:

- Hiri- eta landa-auzoetako alkatetzak: 1.000 €

- Udal-biltegia: 1.000 €.

- Kirolak: 500 €.

- Euskaltegia: 300 €.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Aurrerakin horren kargura, ekitaldian zehar egiten diren gastu arruntak ordaindu ahal izango dira, eta egindako gastuen frogagiriak Kontuhartzailletza Sailean aurkeztu ondoren, funts hori aurkeztutako frogagiriaren zenbatekoarekin birjarriko da.

Nolanahi ere, 2026eko abenduaren 31 baino lehen, egindako gastuen frogagiriak bidali beharko zaizkio Funtzen Kontu-hartzailletzari, eta, hala badagokio, funts horretako soberakina itzuli beharko da eskudirutan.

- Kultura Sailari 300 €-ko aurrerakina emango zaio, kultura-jardueren diru-bilketako leihatilan aldaketak izateko. Aldaketa horien jarraipena eta kontaketa hiru hilean behin egingo du Diruzaintza Sailak.

5. Aurreko zenbakian aipatutakoez gain, alkateak, jarduera bakoitzaren ezaugarriak ikusita (jaiak, kultura-jarduerak, ekitaldi bereziak, etab.), beste aurrerakin batzuk ematea onartu ahal izango du. Aurrerakin horien zenbatekoa, erabiltzeko baimena duten pertsonak, justifikatzeko epea, etab. berariaz jaso beharko da udal-erabakian.

6. Oro har, eta behar bezala arrazoitutako salbuespenak izan ezik, zeinak berariaz jaso beharko baitira gastua onartzeko erabakian, udalak ohiko hornidurengatik eta obrak eta inbertsioak egiteagatik eska dakizkiokeen betebeharrak ordainduko ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitako epeen arabera.

Epe horiek zenbatzen hasteko, ezinbestekoa izango da obraren faktura edo ziurtagiri guztiak Udalean behar bezala erregistratzea (Sarreraren Erregistro Orokorra edo fakturen erregistro osagarria).

8. ARTIKULUA: IRIZPIDE OROKORRA ERA GUZTIETAKO ORDAINKETAK EGITEKO

Arau orokor moduan, ordainketen gauzatze materiala udaleko Diruzaintzak egingo du, indarrean dauden legezko eta arauzko irizpideei jarraituz.

Ordainketen gauzatze materiala egin dela egiaztatuko da sistema hauen bidez:

a) **Ordainketak transferentzia bidez:** Ordaintzeko ohiko sistema izango da. Transferentziak egingo dira hirugarrenak izendatutako kontu batean, eta baimenduko dira hiru pertsonen (klaberoen) sinaduraz: alkatea edo zinegotzi ordezkaria, kontu hartzailea eta diruzaina (titularrak edo ordezkoak), eta baimentzen dituen zerrendan, gutxienez, hauek jaso beharko dira: banketxea, kontu zenbakia eta noiz egin den.


b) **Ordainagiriaren eta zergen ordainketak:** Erabiliko da jaulkitzailearen kodea, atzizkia, erreferentzia, identifikatzailea eta zenbatekoa dituzten ordainagiriak eta zergak ordaintzeko, eta sinadura bakarra beharko da, diruzainarena (titularra edo ordezkoa).

c) **Ordainketak txeki bidez:** Salbuespenez erabiliko da, izendunak izango dira eta hiru pertsonen (klaberoen) sinatu beharko dituzte: alkatea edo zinegotzi ordezkaria, kontu hartzailea eta diruzaina (titularrak edo ordezkoak).

Salbuespen gisa, ordainketaren gauzatze materiala egin ahal izango da sistema hauen bidez:

a) **Zorduntzea kontuan:** Aplikatuko da eraginkortasun arrazoi zorrotzengatik banku helbideratzea ezartzen denean: Elkarkidetza, Gizarte Segurantzak, PFEZ, BEZA, finantza karga, hornidurak (argia, telefonoa...), erregistratzaileen elkargoa eta abar...

b) **Banku txartelak:** Diruzaina gaituko da, salbuespen gisa eta zordunketa txartelaren bidez, ordaindu dezan txartelaren kargura, txartela denean onartutako ordainbide bakarra. Dagokion saileko teknikari arduradunaren txostena beharko da, saileko arduradun politikoaren edo alkatearen oniritziarekin batera, non horren beharra justifikatuko den.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

*Diru funtsen mugimenduak.

Udalaren titulartasuneko kontuen artean diru funtsak mugitzeko, sinadura bakarra beharko da, diruzainarena (titularra edo ordezkoa).

9. ARTIKULUA – DIRULAGUNTZEI BURUZ

1. Dirulaguntzak emango zaizkie kultura-, kirol-, ongintza-, eta gizarte-erakunde edo -elkarteei, eta abar, alkateak horretarako onartutako deialdi publikoa egin ondoren emango dira. Deialdiak argitaratu aurretik, kontu-hartzailetzako organoak fiskalizatu beharko ditu.

2. Deialdia eta oinarriak indarrean dagoen legeriaren arabera idatziko dira, bereziki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, berau garatzen duen 887/2006 erregelamendua eta, era berean, Arrasateko Udalak emandako dirulaguntzen emakida eta kudeaketa arautzen duen udal-ordenantzaren arabera.

3. Dirulaguntzak emateko organo eskuduna alkatea izango da, dirulaguntza kudeatzen duen organoko teknikariak txostena egin eta organo kontu-hartzaileak fiskalizatu ondoren.

4. Emandako dirulaguntzak diruz lagundu beharreko jardueretatik eratorritako finantza-beharren arabera eta laguntza-programa bakoitzaren deialdian ezarritako baldintzen arabera ordainduko dira. Arau orokor gisa, behar bezala justifikatutako salbuespenak ezar daitezke, eta horiek berariaz jaso beharko dira dirulaguntza emateko erabakian:

a) Emandako zenbatekoaren % 60 ordainduko da, 15 eguneko epean, laguntza emateko erabakia hartzen denetik eta onuradunak laguntza onartzen duenetik zenbatzen hasita.

b) Erakunde bakoitzak ekitaldian egindako jardueren memoria eta jarduera horien gastuen eta sarreraren egiaztagiria aurkeztu ondoren, gainerako % 40a edo dagokion zenbatekoa ordainduko da, 15 eguneko epean, alkatearen erabakitik zenbatzen hasita, dirulaguntza kudeatzen duen organo teknikiari txostena egin eta kontu-hartzaileak fiskalizatu ondoren.

5. Egindako ekintzen memoria eta gastuen frogagiriak aurkezteko azken eguna izango da 2027ko urtarrilaren 31a.

Salbuespenez, diruz laguntzen diren ekintzak urteko azken bihilekoan egin behar izanez gero, 2027eko otsailaren 28 arte onartu ahal izango da frogagiriak aurkeztea.

6. Adierazitako egunetan Entitatearen batek dokumentazio hori aurkeztu ezean, hasiera batean ordaindutako zenbatekoaren itzulera lortzeko behar diren tramiteak hasiko dituzte udalaren zerbitzuek. Horren ondorioz, dirulaguntza berriak lortzeko eskubidea galduko dituzte, harik eta egoera hori erregularizatu arte.

7. Udal departamentuek, behar bezala arrazoitua ez badago, onartutako diru-laguntzen likidazioari buruzko akordioak hartu beharko dituzte, 2027eko martxoaren 31a baino lehen.

8. Entitateek, diru-laguntza justifikatzeko agiri euskarria denean, finantza eta kontu egoerak aurkeztu behar dituztenean behar bezala ikuskaturik, eta aurreikusiz gero hurrengo urteetan jarduerak jarraitu behar duela eta diru-

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

laguntzak izaten, amaitutako ekitaldiko diru-laguntzaren likidazioa eta urteko laguntzaren konturako aurrerakinak baimendu ahal izango dira, behin-behineko izaeraz, eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte.

Dokumentazio hori (ikuskatutako finantza egoerak), kasu guztietan, bukatutako ekitaldiaren hurrengo urteko maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu behar du. Aurkeztutako dokumentazioa aztertzetik ateratzen diren emaitzen arabera, hala badagokio, dagokion espedientea hasiko da, larregi kobratu diren diru-laguntzak itzultzeko.

LAUGARREN TITULUA – DIRU-IZENDAPENEI, LOTURA MAILEI ETA BESTE BALDINTZATZAILE BATZUEI BURUZ.

10. ARTIKULUA – AURREKONTU APLIKAZIOA

1. Diru sarreraren egoera orria

1.1. Diru sarreraren egoera orriaren aurreikuspenak sailkatu dira sailkapen ekonomikoaren arabera, eta bereizi dira: kapitulua, artikulua, kontzeptua eta azpikontzeptua.

1.2. Eskubide bat kontabilizatu behar denean eta, hala badagokio, dagokion diru sarrera, kontzepturik edo azpikontzepturik ez badago zabalik diru sarreraren aurrekontuaren kontabilitatean, zabaldu egingo da.

2. Gastuen egoera orria

2.1. Gastuen egoera orriko kredituak sailkatzeko, irizpide hauek erabili dira:

2.1.1. Organikoa: gastu unitatea.

2.1.2. Programen arabera, eta bereiziko dira: gastu arloa, gastu politika, programa multzoa, programak eta azpiprogramak.

2.1.3. Ekonomikoa, eta bereiziko dira: kapitulua, artikulua, kontzeptua eta azpikontzeptua.

Toki erakundearen gastu unitateak (organikoak) antolatzen dira egitura honen arabera:

ORGANIKOA		IZENA
01		Gobernantza eta Segurtasuna
02		Kultura eta Euskara
	020	Kultura
	021	Euskara
03		Finantza zorra

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua


04		Garapen Komunitarioa
	040	Ongizate
	041	Belaunaldien arteko
05		Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuna
	050	Hirigintza
	051	Ingurumena
06		Pertsonala eta Ogasuna
	060	Pertsonala
	061	Ogasuna
07		Tokiko Merkataritza eta Enplegua
	070	Merkataritza
	071	Enplegua
08		Obra, Zerbitzuak eta Mantenua
09		Hezkuntza
12		Kirola
13		Berdintasuna
14		Bizikidetza

11. ARTIKULUA – LOTURA MAILA

1. Gastuen diru-izendapena da, artikuluko honetako 2. puntuan adierazitako salbuespenak izan ezik, hartu beharreko udal konpromisoen gehieneko muga. Aurrekontuan sartzeak ez du inolako eskubiderik ematen eta zerbitzu bakoitzerako behar-beharrezkoa den neurrian bakarrik erabili behar dira konpromiso horiek, kreditua egote hutsak ez duelarik gastua egiteko baimena ematen, behar-beharrezkoa ez bada, behintzat.

2. Hauek dira lotura mailak:

- Langileriaren gastuak (I. kapitulua)

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Kapitulu mailako lotespena

- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan (II. kapitulua)

a) Sailkapen organikoari dagokionez departamentu bakoitzeko sekzioa (3 digito)

b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua (1 digito)

c) Gastu programari dagokionez, programaren taldea (3 digito)

«Garbiketa» kontzeptuari dagokion **227.01** eta «Hornidura» kontzeptuari dagokien **221.01**, **221.02** eta **221.03** azpikontzeptu ekonomikoak aurreko puntuan definitutako lotura juridikotik kanpo geratzen dira, eta azpikontzeptuaren mailan lotuta geratzen da. Hau da, garbiketa partida guztiek lotesle bat osatuko dute; hornidurek, berriz, beste lotesle bat (argia, ura eta gasa).

- Finantza-gastuak (III. eta IX. kapituluak)

Maileguen Interesak ordaintzeko diren kredituak (**332.00** sailkapen ekonomikoa) eta maileguen amortizazioak (**932.00** sailkapen ekonomikoa), gehienez hartu litezkeen obligazioen muga adierazten du kontzeptu bien arteko kopuruak, eta kontzeptu ekonomiko bakoitzaren diru-izendapena gainditu ahal izango da banan-banan.

- Transferentzia arruntak (IV. Kapituluak)

a) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa (3 digito)

b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua (1 digito)

c) Gastu-programei dagokienez, programa taldea (3 digito)

Debagoieneko Mankomunitateko kuotek lotura-poltsa bakarra osatuko dute.
Dirulaguntza izendunen eta zuzenen lotura-maila partida izango da.

- Inbertsio errealak (VI. kapitulua)

Partida

- Kapital-transferentziak (VII. kapitulua)

Partida

- Finantza-aktiboak (VIII. kapitulua)

a) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa (3 digito)

b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua (1 digito)

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

c) Gastu-programei dagokienez, programa taldea (3 digito)

3.- Nolanahi ere, izaera mugatzailea izango dute Gastuen Egoera-orrin agertzen direnko desagregazio-mailarekin (ez dira inongo lotesle poltsan egongo):

a) 13. artikuluan ezarritakoari jarraiki zabalgarritzat deklaraturako kredituek

b) Urteanitzeko (plurianual) konpromisoko kredituek

c) Aurreko ekitaldietatik datozen kreditu txertatuek

4.- Lotespen-mailen barruan, aurrekontua gauzatzen ari den bitartean, gastuak egoki egotzi ahal izateko behar beste aurrekontu-aplikazio sortu ahal izango dira, eta ez da kreditu-aldaketarik egin behar izango kreditu-transferentziaren modalitateaz.

Dena dela, salbuetsita daude atal honetan aurreikusitakotik kontu-sail hauek, finantzatzen duen diru sarrera espezifikoak dutelako:

- Aurrekontuan izaera izenduna duten diru-laguntzak.
- Obretako betearazte subsidiarioa..
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)
- Auzoen aurrekontu arruntei egin beharreko ekarpenak..

5. Halaber, “Kreditu Globala” kontusaila, “fondo” izaeraz sortutakoa, Alkatea izango da, behin dagokion Batzorde Informatzaileak hartarako egindako gastu banaketaren proposamen zehatza egin eta gero, izaera tekniko kreditu aldaketa onartzeko organo eskuduna, gastua benetako izaera ekonomikoaren arabera kontabilizatu ahal izateko.

6. Diru-sarreraren ataleko kontu-saila dagokienez, udal baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua egiten dute aurrekontuaren diru-izendapenek, eta inolako mugarik gabe joka daiteke horietan.

12. ARTIKULUA – AURREKONTU-ALDAKETEI BURUZKO ARAUBIDE OROKORRA

Aurrekontuaren gastuen eta sarreraren egoerak aldatu ahal izango dira Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 27. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera eta hemengo hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Oro har, kreditu-aldaketen espedienteak hasteko, gastuaren zentro kudeatzaileek hasiko dituzte memoria justifikatzaile baten bidez, non azaldu beharko den zer behar dagoen gastua ekitaldi horretan egiteko, eta baita ere kredituen lotespena ezarrita dagoen mailan krediturik ez dagoela edo dagoena ez dela nahikoa.

Ondorengo tramitazioa eta organo eskudunak onar dezan dagokion proposamena Kontuhartzailtzak egingo ditu.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Egindako proposamenek –bai ebazpena emateko, bai batzordearen irizpena izateko– araudi aplikagarrian aldaketa-mota bakoitzerako zehazten diren eskakizunak bete beharko dituzte eta, horretaz gain, Kontuhartzailtzaren aurretiko txostena ere eramango dute erantsita.

Alkatea izango da kreditu-aldaketak onartzeko organo eskuduna, indarrean dagoen legediak onartzen edo aukera ematen duen kasu guztietan. Hala ere, kreditu gehigarrien kasuan, Alkateak eskumena izango du baldintza hauek betetzen dituzten kreditu gehigarriak onartzeko:

- a) Kreditu-eragiketen bidez finantzatzen ez direnak.
- b) Urte osokoak metatuta, Aurrekontuaren hasierako kredituen % 5etik gorako gehikuntza ez dakartenak.

Aparteko kasu horretarako, ez dira aplikatuko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 15., 17. eta 18. artikuluek aipatzen dituzten aurrekontu orokorren informazio, erreklamazio eta argitarapen eta baliabideei buruzko arauak

13. ARTIKULUA - KREDITUAK TXERTATZEA.

1. Ekitaldiko aurrekontuaren likidazio operazioak egiten direnean, kontuhartzaileak soberakin txertagarrien egoera orri bat egingo du.

Zentro kudeatzaile bakoitzak proposamen arrazoituak aurkeztuko ditu, eta, proposamen horietan, adieraziko du zer gerakin edo soberakin txertatu behar diren, dagokion jardun eremuan, erantsiz hurrengo ekitaldian egingo direla ziurtatzen duten proiektuak edo dokumentuak.

Espedientea, erantsiz proposamenak eta kontuhartzailearen txostena, dioena behar beste finantza baliabide ez dagoela txertatu beharreko gastu gerakinak finantzatzeko, alkateak onartu beharko du, eta hark erabakiko du zer-nola txertatuko diren behar beste finantza baliabide duten gerakinak.


Ez badago behar beste finantza baliabiderik egindako proposamen guztiak onartzeko, alkateak jarduketan lehentasuna ezarriko du, hau da, aukeratuko du zer kreditu gerakin txertatzen diren eta zein ez, nahiz eta, kasu guztietan, lehentasuna emango zaien dagoeneko erabili diren gastuei.

2. Kredituak txertatzea alkatearen eskumena izango da, kalterik egin gabe eskuordetzeen araubideari, legez onartua eta argitaratua.

3. Ezin izango dira aplikatu informazioari, erreklamazioei, publizitateari eta errekurtsoei buruz TEAFaren 15. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren arauak.

4. Aurretiazko txertaketa ahalbidetzen da.

14. ARTIKULUA – KREDITU ZABALGARRIAK

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

1. Aurrekontu kontzeptuei dagozkienak joko dira kreditu gehigarritzat, arauz ezartzen diren formalitateak bete ondoren gehitu daitekeenean zenbatekoa, eta kreditu hauek dute izaera hori:

- a) Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diren kredituak.
- b) Lanean igarotako denboraldiaren ondorioz kalkulatzen diren hiru urtekoak ordaintzeko kredituak.
- c) Langileen ordainketak ordaintzeko direnak, onartzen diren lan hitzarmenak aplikatzearen ondorioz gehitu behar direnean edo organo eskudunak onartu dituen ordainketa mailetan izandako aldaketen ondorioz.
- d) "Klase pasiboak" deiturikoei buruzkoak, obligazioen errekonozimenduaren arabera, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
- e) Elkarikidetzako kuotak ordaintzeko diren kredituak, organu eskudunek erabakitako kotizazio tasen gehikuntzaren ondorioz edo Plan horretan sartzearen ondorioz gehitu behar direnak.
- f) Udalak sinatutako mailegu berriak erabiltzetik sortzen diren interesak eta amortizazioak ordaintzeko direnak.
- g) Mankomunitatearen, Partzuergoen, IZFE edo beste entitate batzuetakoak izatearen ondorioz hartu diren konpromisoei erantzuteko behar diren kredituak, horietan parte hartzea dagokion udal akordioaren bitartez erabaki denean.
- h) "Enplegua sortzeko laguntza programa", "Langatuen formakuntza gastuetarako laguntza programa", "Herriko langabetuak kontratatzeko programa" eta "Titulatu berrien praktikaldietarako beka programa" kontusailen dotazioak, udal araudiaren ondorioz hartutako konpromisoak betetzeko diren kredituak, jasotako eskarrietatik ondorioztatzen bada gehikuntzaren beharra.
- i) Hitzarmen edo akordioen ondorioz beste erakunde edo entitateen aurrean hartutako konpromisoak betetzeko diren kredituak, Udalbatzarrak onartutako hitzarmen edo akordioen ondorioz, hartu den konpromiso ekonomikoak zehatz kuantifikaturik ez dituenean kopuruak, akordio hartu zen unean.
- j) Etxeko Laguntzako Zerbitzu azpikontratatuari erantzuteko dagoen kontu-saila, Zerbitzua gehiago eskatzearen ondorioz handitu behar izanez gero.
- k) "Beste gastu batzuetarako diru-laguntzak – behartsuak", "Gizarte Larrialdietako Laguntzak", "Gizarte Laguntzetarako Fondo Propioa" eta "babesgabe egoerak – Azpikontratatuak Zerbitzua" kontu-sailen konpromisoei erantzuteko diren kredituak, eta eskari gehiago izan eta horiek gehitu beharra izanez gero. Kasu horietan, era berean, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan agertzen diren kontsignazioak egokitu beharko lirateke.
- l) Erabaki judizialetatik datozen obligazio ekonomikoak betetzeko diren kredituak.
- m) Euskaltegietan euskara ikasteko bekak ordaintzeko diren kredituak, hartarako onartu den laguntza araudia edo programa aplikatuz sortzen direnak. Kasu horretan, era berean, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan agertzen diren kontsignazioak egokitu beharko lirateke.

2. Orokortasunez, diru-sarreraren aurrekontuaren kontu-sail guztiak jotzen dira kreditu gehigarritzat.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

3. Orokorrean, gehigarriak izango dira aplikazio espezifikoak duten diru-sarrerez ordaintzen diren gastuen aurrekontuko kredituak, edota lortzen den diru-sarreraren mende daudenak (diruzaintzako aurrerakinak, langileentzako ordainketa aurrerakinak). Bereziki, diru-sarreraren aurrekontuan diru-bilketa handiagoen kargura, kontu-sail hauek gehitu dakizkieke gastuen aurrekontuaren kredituei:

a) Euskaltegiko langileen ordainsariak, kontzeptu horretarako HABEk ematen dituen diru-laguntza handiagoen kargura.

b) Etxeko Laguntza Planeko Zerbitzuak, Plan honetarako Foru Aldundiak ematen duen diru-laguntza edo zerbitzu horretako erabiltzaileen ekarpen handiagoen kargura.

c) Jaietako gastuak, bide publikoa barrakez eta herriz herriko saltokiez okupatzeagatik ematen den diru-bilketa handiagoaren kargura, eta jaien ekintzek sortutako diru sarrerak eta diru-laguntzak.

d) Gazteria sailaren ekintzen kontu-saila, Foru Aldundia – Gazteria, eta partikularren ekarpenen kontu-sailak batuta hasieran aurreikusitakoari buruz diru-bilketa handiagoren kontura.

e) Kultura ekintzen kontu-saila, kontzeptu honek sortutako kontu-sail, diru-laguntza eta partikularren ekarpenak batuta diru-bilketa handiagoren kontura, hasierako aurrekontuari buruz.

f) Euskara saileko ekintzak izeneko kontu-saila, batzordeak gauzatutako ekintzetan gertatu litezkeen diru-bilketen kontura.

g) Gizarte Larrialdietako Laguntzak izeneko kontu-saila, helburu horretarako Foru Aldunditik ematen den diru-laguntzaren kontura.

h) Udal Euskaltegiko bigarren kapituluaren gastu kontu-sailak, hasieran aurreikusitakoaren aldean, Euskaltegiaren prezio publikoaren diru-bilketa handiagoaren kontura.

i) Exekuzio Subsidiarioko obren kontu-saila, jabeen edo obra horiek ordaintzeko beharturik dauden ekarpen handiagoren kontura.


j) Kirol ekintzen zerbitzuen (ikastaroak) kontu-saila, diru-sarrera handiagoren kontura ekintza horietan partaide partikularren aportazioen ondorioz.

k) Kultureko erosketen kontu-saila, Kultureko fotokopiagailuaren diru-sarrera handiagoren kontura, edo ekintzetan sortutako diru-sarrera espezifikoengatik.

l) Udal liburutegiko ekintzen kontu-saila, hasieran aurreikusitakoaren aldean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza handiagoren kontura.

m) Tutoretzapeko etxebizitza zerbitzurako kontu-sailak, zerbitzuaren erabiltzaileek diru ekarpenez lortutako diru sarrera handiagoren kontura.

n) San Kristobalgo hilerriaren zerbitzuaren gastuak finantzatzeko diren II. Kapituluko kontu-sailak, hilerriaren tasak hasieran pentsatutakoen aldean diru sarrera handiagoren kontura.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

o) Beste administrazio batzuek bultzatutako enplegua sustatzeko programen ondorioz aldi baterako langileak kontratatzeke diren kontu-sailak, kontratazio horiek egiteko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, eta abarren diru-laguntzengatik hasieran aurreikusitako diru-sarrerara handiagoen kontura.

p) Inbertsioen seigarren kapituluaren eta kapital transferentzien zazpigarren kapituluaren kontu-sailak, beste administrazio edo entitate batzuekin batera finantzatzeko direnak eta udalez kanpoko finantzaketa maila, proiektuaren kostu osoari buruz, %40koa edo handiago bat dutenak.

15. ARTIKULUA- HANDITU EGIN DAITEZKEEN KREDITUAK FINANTZATZEKO BALIABIDEAK

1) Hamahirugarren artikuluan **zabalgarriztat** jotako kredituen gehikuntzak honela finantzatuko dira:

a.- Eragindako eskubideen benetako diru-bilketaren arabera daudenak, hasieran aurreikusitako sarrerek kontuan izanik lortzen diren diru-sarrerara handiagoak oinarritzat hartuta finantzatuko dira.

b.- Finantzaketa modu espezifiko bat esleituta ez daukatenak honela finantzatuko dira, kreditu transferentzia bidez edo egokitze jotako legezko beste edozein baliabideren bitartez.

2) Gehigarritzat jotako kreditu baten diru-izendapena gehitzea tramitzatzeko, dagokion informazio batzordeak, kontuhartzaileak informaturik, proposamena egin behar dio Tokiko Gobernu Batzarrari, eta hura onartzeko organo eskuduna izango da, eta proposamen horretan zein kopuru gehitu nahi den azalduko da eta iguera hori zein kontu-sailen bidez finantzatuko den.

3) Ezinezkoa bada finantzatzea 13. artikuluan aurreikusten diren kredituen gehitzea, artikuluko honetako 1. eta 2. zenbakietan aurreikusten diren baliabideez, gehikuntza behar horiek izapidetuko dira erregimen orokorrean, hots, kredituak aldatzeko espediente baten bitartez, dagokion organo eskudunak onartu beharrekoa.

16. ARTIKULUA – KREDITU BEREZIAK


Aurrekontuen kargura gasturen bat egin behar bada, hurrengo ekitaldira arte ezin utzi litekeena, eta horretarako krediturik ez badago, edota dagoena ez bada nahikoa, Arauotan baimentzen diren transferentziak agortu ondoren, lehen kasuan aparteko kreditu bat emateko proiektua edo, bigarren kasuan, kreditu osagarria emateko planteatuko dio Ogasun Batzordeak Udalbatzarrari, onartu dezan; lehen kasuan kreditu berezia emateko, edo bigarren kasuan, kreditua gehitzeko.

17. ARTIKULUA – KREDITU GLOBALA

2026ko Udal aurrekontuaren gastuen atalaren V. Kapituluaren kontusail bat agertzen da, 1.0100.500.929.00.00 Kreditu Globala kontu-saila; hasieran 100.000,00 euroko zenbatekoaz, aurrekontuko beste kontu-sail batzuen kopuruak nahiko ez badira, erantzuteko horiei, dotaziorik ez dagoen behar berriei aurre egiteko, eta zabalgarri kalifikatutako kredituak finantzatzeko.

Ezingo da baimendu zuzenean gasturik aipatu kontusail horren kontura, aipatu kredituak bakarrik beste kontusailarako kreditu transferentziak finantzatzeko erabili daitezkeelako.

Kreditu globala erabili ahal izateko baimena Alkateak izango du.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

18. ARTIKULUA – URTE ANITZEKO GASTUAK

Organo eskudunak onartu ahal izango ditu, 2026koaren ondorengo ekitaldietara luzatuko diren gastu konpromisoak, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) 2026eko ekitaldian, edo hurrengoan, hasi beharko da gastua egiten, dagoen kreditu-kopurura mugatuta.

b) Kasu hauetako batean egon behar du:

- Inbertsioak.

- Kapital transferentziak.

- Urtebetekoa baino proiektzio luzeagoa duten hitzarmenak.

- Organo eskudun onartutako Udalak partaidetutako entitateen kapital ekarpenak.

c) Konpromisoak beregain hartzeko, zenbat urtealditan aplikatuko den adierazi behar da, bai eta urtealdi bakoitzari dagozkion zenbatekoak ere.

d) Konprometitu beharreko mugei buruz, kasu guztietan, haxe bete behar da, urtealdi bakoitzerako hartu diren konpromisoak likidatutako azken urtealdiko eragiketa arruntetatik datozen baliabideen %25a ez gainditzea.

BOSGARREN TITULUA – FINANTZA ERAGIKETEI BURUZ

19. ARTIKULUA – MAILEGU KONTRATUA

Mailegu berriak kontratatzeko diru-sarreraren aurrekontuan kontsignatu den kopurua, 38.237.204,59 € da.


Toki erakundeak epe luzerako kreditu eragiketa berriak itundu ahal izango ditu, baldin eta proiektatutako eragiketen zenbatekoaren bolumen osoaren eta abenduaren 31n indarrean diren eragiketen baturak (abalek eragindako arriskua barne, eta, hala badagokio, formalizatutako eragiketetan xedatu gabeko saldoetan gehitua) ez badu gainditzen Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako zenbatekoa likidatu edo sortutako diru sarrera arruntan inguruan, kontabilitate egoera finkatuetatik ondorioztatutako zifren arabera.

Mailegu kontratuak berriak sinatzeari dagokionez, kontratu egitasmoa onartu behar da aurretik, eta sinatu behar den maileguaren baldintzak agertuko dira egitasmo horretan.

Udalbatzarraren eskumena izango da kontratu berria onartzea, aurrekontu egonkortasunari buruz indarrean dagoen araudiaren ondorioz bete beharreko baldintzak kontuan izanik, 2025ko aurrekontuaren likidaziotik datozen baliabide arruntan %10 baino handiagoa izanez gero sinatu beharreko kredituaren zenbatekoa. Bestela bada, Alkatea izango da kontratua onartzeko organo eskuduna.

Halaber, Udalaren finantza eta diruzaintzako beharrianek baldintzatuko dute maileguaren benetako erabilera, eta beti, une bakoitzean dauden baliabideei buruz, ahal den errentagarritasunik handiena lortzen saiatuko da.

SEIGARREN TITULUA – LANGILEEN KREDITUEI BURUZ

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

20. ARTIKULUA – LANGILEEN ORDAINKETEI BURUZ

Beren zerbitzuak Arrasateko Udalari ematen dizkieten langile funtzionarioen, lan kontratuko langileen eta behin-behineko langileen urteko ordainketa osoak sartu dira aurrekontuetan.

21. ARTIKULUA –UDALKIDEEI ETA GOBERNU ORGANOEI EMAN BEHARREKO ORDAINKETAK ETA KONPENTSAZIO EKONOMIKOAK

1.- Udalbatzako kideei ordaintzeko kopuruak, haien egitekoak betetzearen truke esleitu eta ordainduko zaizkienak, 2026. urterako 458.422,00 €-an finkatu dira.

Kontu-sail hauek batuz ateratzen da kopuru hori:

1.0100.481.912.00.00 2026 Udal taldeentzako transferentziak	90.000,00 €
1.0101.100.912.00.00 2026 Alkatearen hartzek. eta udalkideen dedikazioa, zatikoa edo erabatekoa	277.931,86 €
1.0101.160.912.00.01 2026 Gizar. Segur. Kuotak- alkatea eta liberatutako udal-kideak	90.490,14 €

GUZTIRA	458.422,00 €

2.- Liberatuta dauden udal-kideen esleipen ekonomikoek udal langileei azkenean aplikatzen zaien azterketa berbera izango dute

3.- “1.0100.481.912.00.00 – Udal taldeentzako konpentsazio ekonomikoa edo transferentziak” kontu-saila banatuko da parametro edo faktore hauen arabera, Udalbatzak 2023ko uztailaren 13an hartutako erabakiaren arabera:

A.- Talde politikoentzat diru esleipena:

A.1.- Udal talde politiko bakoitzarentzat: 750 € hilean.


A.2.-Udal talde politiko bakoitzarentzat, bere taldekoa den zinegotzi bakoitzeko: 200€ hilean zinegotziko.

Kopuru horiek talde politikoei ordainduko zaie.

B.- Dietak bertaratzeagatik:

Dedikaziorik aitortu ez zaien zinegotziek (ez erabatekoa ez eta partziala) udaleko organo kolegiatuetako bileretara joateagatik (Udal Plenoa, Tokiko Gobernu Batzarra, Bozeramaileen Batzordea eta Batzorde Informatzaileak), honako ordainketak jasoko dituzte:

-Organo informatzaileetara bertaratzeagatik (Batzorde informatzailea eta Bozeramaileen batzordea): 90 € bilerako.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

-Organo erabakitzaileetara bertaratzegatik (Udalbatzarra, Tokiko Gobernu Batzordea) edo/eta batzorde informatzaileetako batzordeburua, batzordeko: 140 € bilerako.

4.- A hizkian aurreikusitako kopuruak hileroko igoerriko dira, eta udaleko alderdi politikoei ordainduko zaizkie, udaleko talde politikoen bozeramaileek Kontuhartzailetzari emandako jarraibideen arabera.

5.- Atal honetako A.1 hizkian jasotako kopuruak, udal taldeei ordaintzeko direnak, ez zaizkio aplikatuko talde mistoari (zinegotzi ez atxikituak).

6.- Bileretara joateagatik dauden esleipenak hileroko ordainduko ere zaizkie zuzenean korporatiboari, interesdunak berariaz uko egin ezean eta udal taldeari emateko adierazi ezean. Halaber, titularraren ordezkariak gero, bileran benetan parte hartu duen udalkideak izango du esleipen ekonomikoa kobratzeko eskubidea, hori guztia, kontuan izanik idatziz uko egin dezakeela eta titularrentzat eman dezakeela.

7.- Udalkide batek bere borondatez baja ematen badu udal taldean edota udal talde baten izenean ez badihardu, lege agindu batengatik, faktore aldakorrei dagozkien kopuruak bakarrik ordainduko zaizkio udalkide horri, hau da, artikuluko honetako 3 zenbakiko A.2 eta B hizkietan erregulatutako kopuruak.

8.- Zinegotziek euren gisak obratutako kopuruak zenbateko osokoak izango dira, eta horiei egin beharko zaizkie dagozkion zerga atxikipenak.

ZAZPIGARREN TITULUA: DIRU SARREREI BURUZ

22. ARTIKULUA - UDALAREN ALTXOR PUBLIKOA

Udalaren altxor publikoa kutxa bakarraren printzipioak arautuko du.

Hileroko udal diruzaintzan dauden diru funtsen zenbaketa egingo da, eta informazio hori diruzainak (titularra edo ordezkaria) baliozkotuko du bere sinaduraren bidez.


Hiru hilean behin, informazioa emango zaio Ogasun batzordeari diruzaintzaren mugimenduei eta egoerari buruz.

Urtero, urteko kontuen dokumentazio osagarri gisa, Kutxan dauden izakinen zenbaketa akta erantsi beharko da, kontu desberdinetako fondoen egoera fisikoa eta bere kontziliazioak azalduz, betiere ekitaldi amaierari buruz, eta diruzainak, kontu hartzaileak eta alkateak edo zinegotzi ordezkariak sinatuta.

23. ARTIKULUA - DIRUZAINTZA SOBERAKINAK

Diruzaintzako soberakinak egonez gero, kontsultatuta finantza entitateen artean, udalarentzat eskaintzarik egokiena lortu beharko da. Baliabide likidoak kudeatuko dira irizpide honekin, ahalik eta errentagarritasun handiena lortzea, eta, nolabehere ere, ziurtatuko da obligazioak betetzen direla aldi baterako epemugetan.

Alkateak izango du epe finkorako ezarpenak kontratatzeko eskumena, diruzainak (titularraren edo ordezkariaren) proposatuta. Horiek bete egin beharko dituzte abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 56.2 artikuluan aipatzen diren baldintzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa:

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- Produktuak babestu behar ditu nahikoa konfiantza duen erakunde igorle batek.

- Produktuak izan behar dira fidagarriak eta segurtasun handikoak, hau da, ez dira izango arriskua duten espekulazio produktuak.

- Berehalako likidezia egongo da premiazko ordainketak egiteko.

Baimena ematen zaio diruzainari (titularra edo ordezkoa), batean edo bestean eta sinadura bakar batez, kontratatutako ezarpenaren zati bat edo osoa aldeztu aurretik berreskuratzeko, aipatutako betebeharren ordainketari aurre egin ahal izateko, betiere alkatea eta kontuhartzailea (titularren edo ordezkoen) informatu ondoren.

24. ARTIKULUA - DIRU SARREREN KUDEAKETA FASEAK

Diru sarreraren aurrekontua kudeatuko da, gehienez ere, fase hauekin:

a) Sarrera konpromisoa.

b) Eskubideak aitortzea.

c) Aitortutako eskubideak kobratzea.

a) **Dirua sartzeko konpromisoa:** Egintza honen bidez erakunde edo pertsona batek, publikoa edo pribatua, bere burua behartzen du udalarekin akordio edo hitzarmen bidez gastu jakin bat osorik edo zati batean ordaintzera.

b) **Eskubideak aitortzea:** Egintza honen bidez, diru sarrera bakoitzaren araudi espezifikoaren arabera, eskubide bat sortzen da udalaren alde (R).

Zerga errolda bidez kudeatzen diren diru sarreretan, eskubidea aitortzea kontabilizatuko da errolda, behin betiko onartua, Diru Bilketako sailera bidaltzen den unean kobratu dezaten.

Gainerako zerga, prezio publiko eta bestelako diru sarreretarako, eskubidea aitortzea kontabilizatuko da Diru Bilketako sailera bidaltzen den unean kobratu dezaten.

Autolikidazioetan eta aurretiko zorpetzerik gabeko bestelako diru sarreretan, eskubidea aitortuko da zenbatekoaren diru sarrera (RI) kontabilizatzen den unean.

Dirulaguntzetan eta transferentzietan, eskubidea aitortuko da, ezarritako baldintza guztiak beteta, dirulaguntzak eta transferentziak exijitzeko modukoak direnean.

c) **Aitortutako eskubideak kobratzea.** Eragiketa honen bidez eskubide bat ordaintzen da, lehendik edo aldi berean aitortutakoa, Diruzaintzan dirua sartuz.

Aldizka kobratzeko zergen egutegi fiskala urtero argitaratuko da.

Udalak jaso beharreko diru sarrerak formalizatuko dira sarrera agindu baten bidez, dagokion aurrekontu kontzeptuan, zeina egingo baita Kontu-hartzailletzak dakienean diru funtsak sartu direla udal diruzaintzak ematen duen FI agiriaren bidez (dirua sartzeko era).

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Diru sarrerak, edozein arrazoiengatik, ezin badira kontabilizatu dagokien aurrekontu kontzeptuan, kontabilizatuko dira aplikatu bako diru sarrera gisa.

Sailek informaziorik izanez gero dirulaguntzak ematearen gainean, udaleko Kontu-hartzailetzari jakinaraziko diote, jarraipen zehatza egiteko. Dirulaguntzak udaleko sailek justifikatuko dituzte, eta Kontu-hartzailetzaren jakinaren gainean jarriko dituzte bidalitako frogagiriaren idazkiak.

25. ARTIKULUA - KREDITU ERAGIKETAK

1. **Maileguak.** Kreditu eragiketak Administrazio Publikoen Kontratuen Legetik kanpo daudenez, prestatu eta adjudikatzeko prozedurek tramite hauek bete beharko dituzte:

- Eskaintzak eskatuko zaizkio gutxienez 3 finantza erakunderi.
- Ogasun batzordeak, Diruzaintzak eta Kontuhartzailetak txostena egin eta gero, proposamena helaraziko dio udal organo eskudunari.

2. **Diruzaintzako eragiketak eta maileguak epe laburrera.** Aplikatuko dira maileguetarako adierazitako irizpide berberak, epea izan ezik, gehienez ere urtebetekoa izango baita.

ZORTZIGARREN TITULUA – BARNE KONTROLA

26. ARTIKULUA - BARNE-KONTROLEKO MODALITATEAK

Bat. Udal Erakundearen finantza-kudeaketaren barne-kontrola foru araudiaren eta gainontzeko legeria aplikagarriaren arabera gauzatuko da, eta azterketa esparrua finantza-jarduera osora helduko da, hori osatzen duten eta eduki ekonomikoa duten ekintzen multzoa barne, eta egingo da honako modalitate hauetan:

- Funtzio ikuskatzailea.
- Finantza- eta kontu-ikuskaritza kontrola.
- Eraginkortasunaren kontrola.

Bi. Hurrengo artikuluetan araututako ikuskatze mugatuaren bidez gauzatzea kaltetu gabe, funtzio ikuskatzailearen helburua da eduki ekonomikoko eskubideak eta obligazioak aitortzea dakarten Udal Erakundearen ekintza guztiak zein horietatik ondorioztatutako diru-sarrerak eta gastuak eta herri-ondasunen inbertsioa edo aplikazio orokorra kontrolatzea, Ogasun Publikoaren administrazioa kasu bakoitzean ezarritako xedapenetara doitzen dela ziurtatzeko.

Hiru. Finantza-kontrolaren helburua da ekintza antolamendu juridikora zein finantza-kudeaketa egokiaren printzipio nagusietara egokitzen dela ziurtatzea eskainitako zerbitzuetan. Kontrol horrek honako hauek hartuko ditu barne: efikaziaren eta efizientziaren egiaztapena, erakunde bakoitzak gauzatutako eragiketa guztien erregistro eta zenbaketa egokia eta horren islapen zehatza, aplikatzen diren xedapenen arabera, horiek eratu behar dituzten kontuetan eta egoeretan. Aipatutako finantza-kontrola ikuskatze-prozeduren arabera egingo da, ezarritako arauari jarraiki, eta modu iraunkorrean gauzatu ahal izango da.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Bere kasuan, mota honetako elkarteak sortuko balira, araudiak aurreikusitako menpeko merkataritza-
sozietateak, enpresa-erakunde publikoak eta gainontzeko erakundeak ez dira funtzio ikuskatzaileak gauzatutako
aurreko ikuskaritzaren menpe egongo, baizik eta finantza-, ikuskaritza- eta finantza-kontrolaren menpe.

Lau. Erabaki politikoei buruzko iritzirik eman gabe, efikaziaren kontrolak jardueren egokitzapen
ekonomikoa aztertuko du, programatutako ekintzen eta helburuen ikuspuntutik zein prozesuari atxikitako kostuari
dagokion ikuspuntutik, bai eta foru araudiak zein horren inguruan aplika daitekeen legeriak ezarritako aspektuak ere.

Bost. Funtzio ikuskatzaileaz arduratzen diren funtzionarioek eta finantza- zein efikazia-kontrola gauzatzeko
izendatutakoek independentzia osoz gauzatu dute euren funtzioa, eta beharrezkotzat jotako behar bezain beste
aurrekari eskuratu, beharrezkotzat iruditzen zaizkien liburuaren, kontuen eta dokumentuen azterketa eta egiaztapena
egin, kontaketak eta zenbaketak egiaztatu eta, ikuskatu beharreko ekintzaren, dokumentuaren edo txostenaren
izaerak eskatzen duenean, beharrezkotzat dituzten txosten teknikoak eta aholkularitzak eskatu ahal izango dituzte.

Sei. Udal kontu-hartzailetak gauzatutako barne kontrola foru araudiak eta gainontzeko legeria aplikagarriak
ezarritako kontrol-prozedurei, aplikazio-metodologiari, jarduera-irizpideei, kontrolatzaileen eta kontrol-txostenen
hartzailen eskubideei eta obligazioei buruzko arauetara egokituko da.

Zazpi. Barne-kontrolari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, funtzio ikuskatzailea halabeharrezkoa den
kasuetan eta alde batera utzi denean, ezin izango dira hurrengo tramitazio urratsak eman (obligazioa aitortu, ez eta
obligazioa, ordainketa edo diru-sarreraren kitapenak), omisio hori zuzendu arte.

27. ARTIKULUA - FUNTZIO IKUSKATZAILEA GASTUEN EREMUAN


Bat. Aurrekontuaren araudiak aurreikusitakoaren arabera, Arrasateko Udaleko osoko bilkurak aurretiazko
ikuskatzea onartzen eta ezartzen du, artikulua honetan landutako aspektuetara mugatuta, guzti hori aipatutako
obligazioen edo gastuen ikuskatze mugatua eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin
adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatze osoaren bidezko egiaztapenaren kaltetan gabe.

Bi. Kontratuak

Gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien (15.000,00 €tik gorakoak hornidura eta
zerbitzuetan, eta 40.000,00 €tik gorakoak obretan) aurretiazko ikuskatzea eta kontu-hartzailletza jarraian adierazitako
oinarrizko baldintza hauek egiaztatzeraz mugatuko dira:

- Gastua baimentzea

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5º 4 BKFD 13.2 a) art. SPKL 39.2 b) art., 3.XG	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari erantzea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. SPKL 3.XG	Finantzaketa lotuko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian, eta hura finantzatzen duen bitartekoa kontsolidatuta egotea.
A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. SPKL 3.XG	Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian.
A.5 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. TEAFA 41 art. SPKL 2.XG	Gastua organo eskudunak sortzen duela.
A.6 ERAGOZPEN ETENARAZLEA	AJAED 172 art.	Izapidetzearen ardura duen pertsona/sailaren aldeko txostena dagoela.

- Gastua xedatzea


Honako hau jasoko da:

A.7 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 39 art.	Kontratazioa onartutako eta —hala badagokio— alde fiskalizatutako gastuei egokitzea.
A.8 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	SPKL 2. Liburuko 2. sektzioa	Adjudikazio prezioa bat etortzea egindako eskaintzarekin.

- Kontratuaren aldaketa

Gastua baimentzeko betekizunei (A.1-A.6) honako hauek gehituko zaizkie:

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
B.1 EZ ETENARAZLEA	SPKL 204 art.	- Kontratua aldatzeko aukera agirian dagoela aurreikusita - Ez duela gainditzen haietan aurreikusitako muga - Ez dela sartzen kontratuan aurreikusi ez den unitateko prezio berririk. (Agirian aurreikusitako aldaketen kasuan)
B.2 EZ	SPKL 205 art. AJAED 172 art.	- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 205. artikuluan aurreikusitako puntuak justifikatzeko txosten teknikoa erantsi dela. - Ez direla gainditzen artikulua horretan xedatutako gehieneko

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

ETENARAZLEA		ehunekoak. (Agirian aurreikusi ez diren edo aurreikusi bai baina 204. artikuluan sartuta ez dauden aldaketen kasuan)
B.3 EZ ETENARAZLEA	SPKL 109.3 art.	Behin betiko bermea birdoitu dela.

- Kontratuaren luzapena

Gastua baimentzeko betekizunei (A.1-A.6) honako hauek gehituko zaizkie:

B.1 EZ ETENARAZLEA	SPKL 29 art.	Luzapena baldintza administratibo partikularren agirian aurreikusita zegoela.
B.2 EZ ETENARAZLEA	SPKL 29 art.	Ez direla gainditzen administratibo partikularren agirian edo deskripzio-agirian aurreikusitako iraupen mugak.
B.3 EZ ETENARAZLEA	SPKL 28 art.	Kontratuaren beharraren eta egokitasunaren txostena dagoela.

- Prezioen berrikuspena


Gastua baimentzeko betekizunei (A.1-A.6) honako hauek gehituko zaizkie:

B.2 EZ ETENARAZLEA	SPKL 103.3, 103.4 eta 103.5 art.	- Klausula administratibo partikularren agiriak berrikusteko aplikatu beharreko formula zehazten duela. - Eredu-formula bat onartu bada, agirietan ez dela sartu berrikusteko beste formula desberdin bat. - Gutxienez bere zenbatekoaren ehuneko 20an gauzatu dela.
--------------------------	----------------------------------	--

Bi. Dirulaguntzak

Diru-laguntzetan gastuak sortzen dituzten eduki ekonomikoko egintza guztien aldez aurreko fiskalizazioa eta esku-hartzea oinarritzko baldintza hauek egiaztatzeraz eta egiaztatzeraz mugatuko da:

- Norgehiagokako dirulaguntzak

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

a) Gastua baimentzea

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5° 4 BKFD 13.2 a) art. SPKL 39.2 b) art., 3.XG	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari eranstea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.
A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. SPKL 3.XG	Finantzaketa lotuko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian, eta hura finantzatzen duen bitartekoa kontsolidatuta egotea.
A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. SPKL 3.XG	Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian.
A.5 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. TEAFA 41 art. SPKL 2.XG	Gastua organo eskudunak sortzen duela.
A.6 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	AJAED 172, 175 art. SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 8 art.	- Dirulaguntzen bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak zehazten dituen plan estrategikoa egotea eta, plan horretan, helburuok erdiesteko epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa iturriak agertzea. - Deialdia dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.

b) Gastuaren xedapena:

Gastua baimentzeko betekizunei (A.1A.5) honako hauek gehituko zaizkie:

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.6 ERAGOZPEN	TEAFA 39. art.	Proposaturiko gastua onarturiko gastuei egokitzea eta, hala badagokio, aldeko fiskalizazioa izatea.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				




Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

ETENERAZLEA		
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENERAZLEA	DLO 23 art.	Deialdiaren testua eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea datu baseari.
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENERAZLEA	DLO 24.4 art.	Hala badagokio, kide anitzeko organo egokiak eskaeren ebaluazioari buruzko txostena ematea.
B.3 ERAGOZPEN EZ ETENERAZLEA	DLO 24.4 art.	Instrukzio-organismoaren txostena izatea eta bertan adieraztea organo horren eskura dagoen informazioaren arabera, onuradun guztiek dirulaguntzak jasotzeko betekizun guztiak betetzen dituztela.
B.4 ERAGOZPEN EZ ETENERAZLEA	DLO 24.4 art.	Prozedura ebazteko proposamenak dirulaguntza jasoko duen eskatzailea edo eskatzaileak eta zenbatekoak adieraztea.

c) Obligazioaren onarpena:

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5 ^o 4 BKFD 13.2 a) art. DLO 9.4.b) art.	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari erantzea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.
A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19.a) art.	Proposatutako gastua onarturiko eta erabilitako gastuei egokitzea eta aldeko fiskalizazioa izatea, onarpena, erabilera eta aitorpena aldi berean egin beharreko gastuak izan ezik.
A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19.b) art.	Betebeharra justifikatzeko agiriak aplikagarriak diren legezko eta arauzko xedapenekin bat etortzea. Nolanahi ere, agiritan honako hauek agertu behar dira: Pertsona edo erakunde hartzekodunaren identifikazioa, obligazioaren zenbateko zehatza, ordaintzeko betebeharrari lotutako prestazioak, zerbitzuak edo beste arrazoi batzuk.
A.5 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a) art. TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

A.6 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	AJAED 172, 175 art. SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 34.4 art. DLE 88.2 art.	Dirulaguntza erregulatzen duen araudiak jasotako konturako ordainketak (zatikatuak edo aurrerratuak) izatea.
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 23 art.	Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea datu baseari.

d) Dirulaguntzak likidatzea ordainketa aurreratuen bidez

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19 a) art.	Proposaturiko gastua onarturiko eta erabilitako gastuei egokitzea eta aldeko fiskalizazioa izatea, onarpena, erabilera eta aitorkpena aldi berean egin beharreko gastuak izan ezik.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a) art. TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 32 art. DLE 84 art.	Dirulaguntzaren zuriaketa egokia egiaztatzea, bai eta jarduera gauzatu dela eta dirulaguntzaren emakida edo gozamina bidezkoak duen helburua bete dela ere.
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 37 art. DLE 90 art.	Hala badagokio, likidazio-proposamenak zuriu gabeko zenbatekoak (eta hartzailearen ekimenez aurretiaz itzuli ez direnak) itzuli behar direla adieraztea.

• Zuzeneko dirulaguntzak

a) Gastua baimentzea eta xedatzea:

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5 ⁴ BKFD 13.2 a) art. DLO 9.4.b) art.	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari erantzea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat.


Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.
A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art.	Finantzaketa lotuko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian, eta hura finantzatzeko duen bitartekoa kontsolidatuta egotea.
A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. DLE 56 art.	Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurretiazko izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian.
A.5 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a), 17.3 g) art. DLE 65, 67 art. TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.
A.6 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	AJAED 172, 175 art. SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 22.2 art. DLE 67 art.	Zuzenean emateko dirulaguntzak ondoko inguruabarretako bati doakio: - Tokiko erakundearen aurrekontuetan ageri dira dirulaguntza izendun gisa. - Dirulaguntzaren emakida edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezarrita dau(z)ka, laguntza bakoitzari aplikatu beharreko prozedura berariazkoa jarraituz. - Interes publiko sozial, ekonomiko edo humanitarioari lotutako arrazoiak adierazten dira edo deialdi publiko bidez ematea zailtzen duten beste interes publikoko arrazoi batzuk adierazten dira, dirulaguntzen izaera berezia egiaztatzeko.
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 22.2 art.	Arloa zein den, eskumena daukan organo kudeatzailearen txostena izatea, eta txosten horrek justifikatzea dirulaguntzen izaera salbuespenezkoa, interes publiko sozial, ekonomiko edo humanitarioa arrazoituta, edo deialdi publiko bidez ematea zailtzen duten beste interes publikoko arrazoi batzuk adierazita.
B.3 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 8 art.	Deialdia dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.
B.4 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 28 art. DLE 65,67 art.	Emateko erabakiak edo hitzarmenak bete beharreko gutxieneko betekizunak jasotzea.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

b) Obligazioaren onarpena:

A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	TEAFA 19.3 art. AEFD 3.5ª BKFD 13.2 a) art. DLO 9.4.b) art.	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari eranstea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 a) art. TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.
A.3 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19.a) art.	Proposaturiko gastua onarturiko eta erabilitako gastuei egokitzea eta aldeko fiskalizazioa izatea, onarpena, erabilera eta aitorpena aldi berean egin beharreko gastuak izan ezik.
A.4 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19.b) art.	Betebeharra justifikatzeko agiriak aplikagarriak diren legezko eta arauzko xedapenekin bat etortzea. Nolanahi ere, agirietan honako hauek agertu behar dira: Pertsona edo erakunde hartzekodunaren identifikazioa, obligazioaren zenbateko zehatza, ordaintzeko betebeharrari lotutako prestazioak, zerbitzuak edo beste arrazoi batzuk.
A.5 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a) art. TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.
A.6 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	AJAED 172, 175 art. SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 34.4 art. DLE 88.2 art.	Dirulaguntza erregulatzen duen araudiak jasotako konturako ordainketak (zatikatuak edo aurreratuak) izatea.
B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 23 art.	Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea datu baseari.

c) Dirulaguntzak likidatzea ordainketa aurreratuen bidez

A.	Leg. Erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak
A.1 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 19 a) art.	Proposaturiko gastua onarturiko eta erabilitako gastuei egokitzea eta aldeko fiskalizazioa izatea, onarpena, erabilera eta aitorpena aldi berean egin beharreko gastuak izan ezik.
A.2 ERAGOZPEN ETENERAZLEA	BKFD 13.2 b) art. DLO 9.4.a) art. TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

B.1 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 32 DLE 84 art.	art.	Dirulaguntzaren zuriketa egokia egiaztatzea, bai eta jarduera gauzatu dela eta dirulaguntzaren emakida edo gozamina bidezkotzen duen helburua bete dela ere.
B.2 ERAGOZPEN EZ ETENARAZLEA	DLO 37 DLE 90 art.	art.	Hala badagokio, likidazio-proposamenak zuritu gabeko zenbatekoak (eta hartzailearen ekimenez aurretiaz itzuli ez direnak) itzuli behar direla adieraztea.

Lau. Bestelako gastuak

- Kutxako aurrerakinera gehienezko gastu posiblea arautuko duen akordioa izatea.
- 18.000,00 €ko edo gehiagoko ondare-errekamaziotan, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren irizpena izatea.
- Bestelako funtsezko baldintzak, obligazioaren edo gastuaren arabera.

Bost. Erakunde kontu-hartzaileak egokitzen jotako behaketa osagarriak egin ahal izango ditu, horiek dagozkien espedienteen izapidetzean inolako etendura-eraginik izan gabe. Gainera, behaketa osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun planteamendua egin beharko.

Sei. Ondorengo artikuluetan garatu bezala, aurretiazko kontrol mugatuak ondorengo ikuskatze osoa ekarriko du berekin, ikuskaritza- eta laginketa-teknikak erabiliz; horren emaitza barne-kontrolako urteko txostenean islatuko da, atal independente gisa, ondorengo kontrol ikuskatzaile osoari buruzko txostena izenburuarekin.

28. ARTIKULUA - ERAGOZPENAK ETA HORIEN IZAPIDETZEA:

Bat. Aurreko artikuluko Bigarren eta Hirugarren ataletan landutako aspektuak aztertzerakoan, erakunde ikuskatzaileak txostenean arrazoiz adierazten duenean ikuskatze mugatuan egiaztatutako aspekturen bat ez dela betetzen, idatziz ere egingo du, eragotzi beharreko aspektuak adieraziz eta, bertan horren eraginak eta izapidetzea adierazita.

Eragozpena erakunde kudeatzaileari bidali beharko zaio, horren arduradun tekniko nagusiari edo zuzendariari kopia ere bidalita.

Eragozpenarekin ados egonez gero, Gastuaren kudeatzaileak espedientea zuzendu edo hori izapidetzeari uko egin ahal izango dio.

Espedientea zuzenduz gero, erakunde kudeatzaileak berriro bidaliko dio hori erakunde kontu-hartzaileari.

Ados izan ezean, erakunde kudeatzaileak desadostasun-txostena egingo du. Kasu horretan, desadostasuna 5 egunetako epe barruan igorri beharko da, gehienez, desadostasun-txostenaren kopia erakunde kontu-hartzaileari eta gastua onartzeko erakunde eskudunari (zinegotzi ordezkaria, alkatea, Tokiko Gobernu Batzarra edo osoko bilkura, eragotzi beharreko objektuaren arabera, hori izapidetzea dagokion pertsonaren arabera eta hori eteteko modukoa den ala ez kontuan izanda) bidalita. Horrela, honako bi egoera hauek izan ditzakegu:

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

A).- Kentzea Osoko Bilkurari dagokion eragozpenei dagokienez:

-Eragozpen etengarria: aurreko 26. Artikuluan izaera hori dutenak, bai eta obligazioak eta gastuak onartzea osoko bilkuraren eskumena diren kasuetan ere.

Eragozpena krediturik ez izateagatik edo nahikoa ez izateagatik, eragozpena kentzea gastua estaltzen duen aurrekontu-aldaketa egokiarekin batera planteatu beharko da derrigorrez.

Etete-ondorioak dituen eragozpenaren izapidetzea osoko bilkuraren Araudi Organikoan aurreikusitako xedapenetara doitu da edo, bestela, toki-araubidearen antolakuntza arloko oinarritzko legeriara.

B).-Eragozpenak kentzea Udalbatzarra ez den beste organo edo karguei dagokienean, horiek Alkatetzatik ebatziko dira ondorengo prozeduraz:

- Alkateak bere irizpidearen arabera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak bildu ahal izango ditu. Alde horretatik, etete-ondorioak ez dituzten eragozpenei buruzko arauen betearazpenari buruzko kontuhartzailtzaren iritziek ez dute derrigorrez nagusitu behar kudeaketa-erakundearen iritzien aurrean, ez eta alkate-presidenteak finantza-babesa esleituta duen Administrazioaren arloko kontrol-erakunde eskudunari eska dakizkioken txostenen aurrean ere.

Bi- Erakunde kontu-hartzaileak eutsitako irizpidea jarraitu ezean, erakunde kudeatzailearen obligazioa da, bere arduradun teknikoaren edo zuzendariaren bidez bete beharrekoa, zehazki ebazpenean jartzea erakunde kontu-hartzailearen oharra ikusita eta aztertuta hartu dela akordioa.

Hiru. Urtero, Kontu Orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, eta barne-kontrolko testu honetan bildutako baldintzetan, Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez, jarritako eragozpenen kontra Alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio.

29. ARTIKULUA - ONDORENGO KONTROL KONTU-HARTZAILE OSOARI BURUZKO TXOSTENA

Bat. Ikuskatze mugatuaren onarpena eta ezarpena dela eta, finantza-kontrolko urteko txostenarekin batera, erakunde kontu-hartzaileak ondoko kontrol kontu-hartzaile osoaren ekintzen emaitza igorriko du, gastuen espedienteen lagin adierazlearen gainean.

Erakunde kontu-hartzaileak lagina hautatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztuko ditu, eta horren berri bere oinarria diren irizpideekin batera, Ogasun Batzordean emango ditu, eragiketa-talde jakin batzuetako hutsuneei buruzko aurretiazko informazioa duten kasuak zein hutsuneren bat detektatu duten prozedurak gailenduta. Gainera, lagina, gutxienez, honako kopuruak beteko ditu:

- % 5a, ekitaldian emandako eta likidatutako dirulaguntzei buruz (aurrekontuko IV eta VII kapitulua).

- %10a, ekitaldian gauzatutako (aurrekontuko VI kapitulua) inbertsioei buruz.

- II. kapituluko (Ondasun eta Zerbitzu arrunten erosketak) obligazio errekonozimenduen zenbatekoaren %5a edo gehiago gertarazten badute.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Bi. Txosten hori osoko bilkurari bidali baino lehen, eragindako Unitate kudeatzaileak mugituko dira, gehienez, 10 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta horiek ikusita, erakunde kontu-hartzaileak behin betiko txostena igorri dezan.

30. ARTIKULUA – FUNTZIO IKUSKATZAILEA DIRU SARREREN EREMUAN

Bat. Aurrekontu-araudian aurreikusitakoaren babespean, Arrasateko Udaleko Osoko Bilkurak Diru-sarreraren aurretiazko ikuskatze mugatua onartzen eta ezartzen du.

Horrela, diru-sarreraren arloko aurretiazko ikuskatzea kontabilitateko arrazoi-hartzeagatik ordezkutzen da. Gastuen kasuan bezala, sistema horrek laginaren gaineko diru-sarreraren ondoko egiaztapen osoa eskatzen du, emaitza aurreko artikuluan araututako txostenean bilduta.

Aukeratutako sarreraren laginari buruzko irizpideen berri emango da Ogasun Batzordean.

Bi. Diru-sarreraren eremuko ikuskatze mugatua hurrengo aspektuen egiaztapenaren bidez egingo da:

- Organo eskudunak likidatzea.
- Kontabilitateko arrazoi-hartzea gauzatzea.
- Kasua izanez gero, dagokion BEZ igortzea.
- Diru-sarrera bidegabean itzuleraren arloan, itzulera kudeatzen duen Sailak igorritako aldeko txostena izatea.
- Errolden eta zerrenda frogagarrien ikuskatzean, indarreko legeria betetzen dela egiaztatzen duen Sail kudeatzailearen txostena izatea.

Hiru. Sarrerei buruzko eragozpenak eta horien izapidetzea:

Eragozpena toki-erakundearen edo horien erakunde autonomoen aldeko eskubideen aitortzearen edo likidazioari dagokionean, eragozpen-oharra egingo da; horrek, ordea, ez du inola ere espedientearen izapidetzea etengo.


Erakunde kontu-hartzaileak idatziz jakinaraziko du eragotzi behar diren aspektuei buruz, horren eraginak eta izapidetzea adierazita.

Ikuskatze mugatua gauzatzeko gehienezko epea bost egun baliodunekoa izango da, ikuskatu beharreko espedientea jasotzen den unetik aurrera.

Formulatutako eragozpena erakunde kudeatzaileari bidali beharko zaio, horren arduradun tekniko nagusiari edo zuzendariari kopia ere bidalita.

Eragozpenarekin ados egonez gero, erakunde kudeatzaileak espedientea zuzendu edo hori izapidetzeari uko egin ahal izango dio.

Espedientea zuzenduz gero, erakunde kudeatzaileak berriro bidaliko dio hori erakunde ikuskatzaileari.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Ados izan ezean, erakunde kudeatzaileak desadostasun-txostena egingo du. Kasu horretan, desadostasuna bost eguneko epean igorri beharko da, gehienez, desadostasun-txostenaren kopia erakunde kontu-hartzaileari eta alkateari bidalita, hori ebazteko.

Alkateak bere irizpidearen arabera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak bildu ahal izango ditu.

Eragozpena kenduz gero, zehazki jakinaraziko da akordioa hartzeko ebazpenean, hori hartu dela, erakunde kontu-hartzailearen oharra ikusi eta aztertu ondoren.

Urtero, kontu-hartzailletzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez erakundeko presidenteak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio.

Lau. Sarrerei buruzko ondoko ikuskatze osorako lagingaren aukeraketa.

Ogasun Batzordeak artikulu honetan ezarritako beste irizpide osagarriak jartzeko aukeraren kaltetan gabe, izaera orokorraz, zerga eta tasa nagusien zerga likidazio ausazko lagina aukeratuko da, zerga figura bakoitzetik likidazio bat, gutxienez, eta ordaindu beharreko gutxieneko kopururik gabe.

31. ARTIKULUA- FINANTZA ETA IKUSKAPEN KONTROLA. EFIKAZIA KONTROLA

A - Finantza eta Ikuskapen Kontrolaren jarduerak

Bat. Erakunde kontu-hartzaileak, zuzenean edo lan horiek egiteko legeak gaitutako enpresa adituen bitartez, finantza-kontrolaren funtzioa gauzatuko du, araudiaren arabera erabakitako erakundeen kontuen ikuskaritza barne. .


Bi. Finantza-kontrola honako subjektu hauei dagokienez gauzatuko da:

- Erakunde Autonomoak eta tokiko erakundearen menpeko Merkataritza Sozietateak, bai eta Enpresa Entitate Publikoak ere.
- Merkataritza Sozietateak, enpresak, erakundeak eta diru-laguntzengatiko, kredituengatiko, abalengatiko eta Udalaren zein Aurrekontu Orokorren kontura emandako gainontzeko laguntzengatiko partikularrak.

Hiru. Finantza-kontrolaren helburua finantza-informazioaren aurkezpen egokiaren, aplikatu beharreko arauen eta zuzentarauen betearazpenaren eta aurreikusitako helburuen lorpenaren efikazia- eta efizientzia-mailaren berri ematea da.

Lau. Finantza-kontrola ikuskaritza-tekniken bidez egingo da, eta honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Kontabilitate-erregistroen, finantza-kontuen edo egoeren azterketa, analisi-prozedura zehatzen aplikazioaren bidez.
- Banakako eragiketa zehatzen azterketa.
- Kontrolatutako erakundeak gauzatutako ekintza-serie baten aspektu partzialak eta zehatzak egiaztatzea.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- d) Inbertsioen eta bestelako aktiboen egiaztapen materiala.
- e) Artikulu honetako Bigarren atalean aipatutako kontrolatu daitezkeen subjektuen kontuei buruzko ikuskaritza-txostenen azterketa eta analisisa, hori egiteko legalki gaitutako enpresen bidez.
- f) Erakunde kontu-hartzaileak erabakitako bestelako egiaztapenak, kontrolatutako erakundeek gauzatutako jardueren ezaugarri bereziei arreta jarrita.

Bost. Urtero, Kontu Orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, gauzatutako kontrolaren emaitza gisa, eta barne-kontrolaren testu araugilearen baldintzetan, erakunde kontu-hartzaileak gauzatutako azterketatik ondorioztatutako behaketak eta ondorioak jakinarazten dituen testu idatzia aurkeztuko du. Txostenean, epigrafe jakin batean, bere kasuan (sortuko balira izaera horretako elkarteak), menpeko merkataritza-sozietateek derrigorrez jasaten duten finantza-kontrollean lortutako emaitzak jasoko dira; izan ere, aipatutako sozietateak ez daude funtzio kontu-hartzailearen menpe.

Ikuskatutako erakundeak egindako alegazioekin batera, finantza-kontrolari buruzko txostena osoko bilkurara bidaliko da, horrek aztertu eta ezagutu dezan.

Sei. “Ondoko barne-kontrol osoari buruzko txostenaren” zein “finantza- eta ikuskaritza-kontrolari buruzko txostenaren” urteko izaera dela eta, dokumentu bakar batean aurkeztuko dira, nahiz eta txosten independenteak izan; izan ere, lehena erakunde kontu-hartzailearen jardueren barnean enkoadratzen da, funtzio kontu-hartzailearen jardueran, modu mugatuan jarduterakoan, eta bigarrenak baliabideen kudeaketako ekonomia-, efikazia- eta efizientzia-printzipioen betearazpenaren egiaztapenari erantzuten dio.

B. Efikazia Kontrolaren jarduera

Eraginkortasunaren kontrolak helburuen betetze-maila aldian behin egiaztatzen du, eta dagozkion zerbitzuen edo zerbitzuen funtzionamendu-kostua eta errendimendua aztertzen ditu, aipatutako kontrolak erabaki politikoei buruzko iritzirik eman ahal izan gabe.

Kontrol hori foru-araudiak eta aplika daitezkeen gainontzeko legeriak araututako prozeduretara eta printzipioetara doituko da.


C. Diru-laguntzen eta laguntza publikoen finantza-kontrolaren inguruan

Finantza-kontrola erakunde kontu-hartzaileak gauzatuko du, diru-laguntzen eta laguntza publikoen onuradunei dagokienez.

Kontrol-lanetan antzematen bada laguntza edo diru-laguntza ez dela zuzen lortu eta erabili, edo jasotako laguntza edo diru-laguntzaren helburua ez dela aurkeztutakoa, orduantxe, erakunde kontu-hartzailearen aurretiazko baimenarekin, ikuskatze-lanok egiteko ardura dutenek atxiki ahal izango dituzte fakturak, agiri baliokideak nahiz ordezkioak eta eragiketa susmagarriei buruzko beste edozein agiri.

32. ARTIKULUA - URTEKO KONTROL TXOSTENEN ETA UDAL KONTU-HARTZAILTZAKO GAINONTZEKO TXOSTENEN INGURUAN

A - Kontu-hartzailetzako kontrolaren urteko txostenak:

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Bat. Urtero, Kontu Orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, erakunde kontu-hartzaileak barne-kontrolleko jardueri buruzko hurrengo informazioa igorriko du:

- Ondoko barne-kontrol osoari buruzko txostena.
- Finantza- eta kontu-ikuskaritza kontrolari buruzko txostena.
- Ekitaldi bakoitzean funtzio kontu-hartzailearen, finantza- eta ikuskaritza-kontrolaren funtzioaren eta efikazia-kontrolaren funtzioaren modalitateetan gauzatutako kontrolen emaitzen laburpen txostena, Administrazio eskudunek ezarritako arauetan finkatutako epean eta edukiarekin. Txosten hori foru-araudiak eta aplikatu daitezkeen gainontzeko legeriak erabakitako erakundeetara bidaliko da.
- Tokiko erakundeko presidenteak edo dagokion organoak (zinegotzi eskuordetua edo Tokiko Gobernu Batzarra) egindako eragozpenen aurka hartutako ebazpen guztiak islatzen dituen txostena eta diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena.

Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, ikuskatutako jarduketaren aukerari edo komenigarritasunari dagozkien gaiak sartu gabe. Txosten osoko bilkurari aurkeztuko zaio, dagozkion osoko bilkurako gai-zerrendan puntu independente bat osatuta.

Udalbatzako presidenteak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-erakundeko Alkateak udal finantza-tutoretza esleitua duen kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena.

Txostena Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta indarreko legeriak aurreikusitako gainontzeko erakundeei bidaliko zaie, eta horri toki-erakundeko presidenteak eta udalbatzaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztiak erantsiko zaizkio; bai eta diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena ere. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.

Bi. Txostenak desberdindutako epigrafe independenteak dituen dokumentu bakar batean bategin ahal izango dira, bakoitzaren edukiaren arabera.


B- Udal kontu-hartzailetzak igorri beharreko gainontzeko txostenak:

Orokorrean, eta Administrazio eskudunei eman beharreko informazioari kalterik egin gabe, aurreko artikuluan aipatutako kontrol-txostenez gain, erakunde kontu-hartzaileak indarreko legeriak erakunde kontu-hartzaileari egotzitako txostenak burutuko ditu.

BEDERATZIGARREN TITULUA – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

33. ARTIKULUA – UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

1.- 2026eko aurrekontua itxita geratuko da 2026/12/31n, egun horretara arte likidatutako eskubideei eta aitortutako obligazioei buruz.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

2.- Alkatea izango da organo eskuduna ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzeko, kontu-hartzailearen aholkuarekin. Ebazpenaren berri emango da Ogasun Batzordean.

Halaber, alkatea izango da organo eskuduna kreditu soberakinak barne hartzea erabakitzeko, aplikatzeko den aurrekontu araudian aurreikusitako kasuetarako, hori guztia baldin eta nahiko baliabide badago barne hartutako horiek finantzatzeko.

3.- Orokortasunez, Ondasun eta Zerbitzuak erostea Bigarren Kapituluaren eta Transferentzia Korronteak Laugarren Kapituluaren gastu guztiak, "O" edo "agindutakoa" fasera (onartutako faktura edo ziurtagiria) 2026/12/31rako heldu ez direnak, diru-sarrera espezifikorik ez badute, behintzat, deuseztatu egingo dira automatikoki, eta beste akordio bat hartu behar da hurrengo ekitaldian eta hurrengo aurrekontuaren kontura, hasieran aurreikusitako gastua egiten jarraitzeko borondatea izanez gero.

4.- Inbertsioak - Seigarren kapituluaren eta Kapital transferentziak - zazpigarren kapituluaren gastuak, 2026/12/31n "O" fasera (faktura edo onartutako ziurtagiria) iritsi ez direnak, hurrengo ekitaldian sartzeari buruzko erabakia alkateak hartuko du, dagokion Batzorde informatiboaren proposamenaren ondoren.

5 – Eskumenak garatzeari begira, aurreikusiak osoko bilkurarentzat 86/2015 Foru Dekretuko 8. arauan, c hizkia, zeinaren bidez onartzen den Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitate arauen esparrua, ezartzen dira kontabilitate irizpide hauek:

a – **KOBRANTZA ZALANTZAGARRIKO KUANTIFIKAZIOA** – Ez bada udal kontu hartzaileak txostena egiten duela arrazoiz justifikatzeko beste kuantifikazio mota bat, aplikatuko dira kobrantza zalantzagarriko portzentaje hauek:

- | | |
|---|-------|
| - Zorrak 2 urte baino lehenago sortuak, | % 100 |
| - Zorrak 1 eta 2 urte artean sortuak, | % 75 |
| - Zorrak urte bat baino tarte txikiagoan sortuak, | % 10 |

b.- **ZER IRIZPIDE IZAN IBILGETUA BALORATZEKO** – Orokortasunez, erabiliko da kostu historikoaren irizpidea eta amortizazio linealeko metodoa (deskontatuta hondar balioa), balio bizitza izendatu honen arabera:

	BALIO BIZITZA	URTEKO AMORTIZAZIOA
Bulego eraikinak, merkataritza erabilerakoak eta/edo zerbitzuetakoak, etxebizitzak	50 urte	% 2
Industria erabilerako eraikinak	30 urte	% 3,33
Instalazioak	10 urte	% 10
Makinak	10 urte	% 10

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Ibilgailuak	8 urte	% 12,5
Altzariak	10 urte	% 10
Tresnak	4 urte	% 25
Ekipo informatikoak	4 urte	% 25
Aplikazio informatikoak	4 urte	% 25
Ibilgetu immateriala		
Lursailak	Ez da amortizatzen	---
Zerbitzuen sareak (ura, argiteria eta abar)	25 urte	% 4
Azpiegiturak, emanak erabilera orokorra egiteko, izaera amortizagarriarekin	25 urte	% 4

c.- ZER IRIZPIDE DAGOEN AURREKONTUKO DIRU SARRERAK ERREGISTRATZEKO –


Toki administrazioari egokituta kontabilitate publikoaren plan orokorraren kontzeptu esparruan ezarritakoa salbuetsirik, mugak daudelako programa informatiko erabilgarriekin eta inportantzia material urri dutelako, ez dira baliogabetuko kontabilitatetik geroratzeak edo zatikapenak, baldin eta bukaera aldia bada (zorraren likidazio osorako aldia) urte bat baino txikiagoa edo, nahiz eta epe hori gaingitu, intzidentzia kuantitatiboa bada 10.000 euro baino txikiagoa. Gehiegizkoei, epean edo zenbatekoan, hizki honetan adierazitakoari buruz, bai emango zaie baja kontabilitatean, eta geroago kontabilizatuko dira dagokion aurrekontu ekitaldian.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri edo arau hauetan pentsatu ez denari buruz, indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Arau hauek eragina izango dute 2026eko urtean eta horren luzapenean, gertatuz gero, eta indarrean jarraituko dute Udalak aldatu edo baliogabetzea onartzen ez duen bitartean.

Kodea	J25/05911	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DHJH.E.exjy			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DHJHE.exjy			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				